

2025ean Oiertzunen arte sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak.

1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.

Ebazpen honen xedea hauxe da: sorkuntza- eta ekoizpen-prozesuak garatzen ari diren Oiertzungo artistei, jarduera-proiektu horiek bultzatzeko, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiertzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza horiek sorkuntza- eta ekoizpen- prozesuak garatzeko jarduera-proiektuak bultzatzeko helburua dute, betiere arte-adierazpenen berrikuntzara, sortzaileen babesera, parte-hartzera, generoen arteko berdintasunera eta tokiko ingurunearekiko harremanera bideratuta.

2025ko deialdian, jarduera-proiektu horiek kultura- edo sormen-sektoreen batean sartuta egon beharko dute: zinema eta ikus- entzunezkoak, argazkia, dantza, literatura, musika, antzerkia, arte plastikoak.

Dirulaguntza hauen helburua da sortzaileei beraien obra sortu eta gauzatzeko laguntza ekonomikoa ematea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2025-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina, 1/2023 Legegintzako Dekretuz, martxoaren 16an onartuak jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du, eta bereziki emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina, 1/2023 Legegintzako Dekretuz, martxoaren 16an onartua.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oiertzunen aipatutako arte edo kultur eremuren batean diharduen edo hasi nahi duten eta herritarren intereseko ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Oiertzundik kanpoko pertsona edo erakundeen kasuan, Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarreak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarrekin, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarrekin izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdina jokatu du.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintza artistikoak (zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia...) hitzezko edo idatzizko euskarria badu, edota emanaldirik antolatuko balitz euskaraz izatea hobetsiko da.

Emanaldia euskaraz izatea ezinezkoa balitz, aurkezle euskaldun bat behintzat bermatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.

Kasu horretan, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatu da ekintza ez dela euskaraz izango. Hitzaldirik edo solasaldirik antolatuko balitz, herritarrei ez zaie inolako mugarik jarriko euskaraz jarduteagatik, eta onuradunak bermatu beharko du parte hartzaileek elkar ulertzea.

3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Oiertzungo udalerritik kanpo gauzatzen diren ekitaldietarako.
- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren ekitaldietarako.
- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren ekitaldiak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo alde aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Ikastaroak edo ikaslanak.

4. ARTIKULUA.- Diru laguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta jarraian deskribatzen diren kuantifikazio irizpideak jarraituz.

4.1. Diru laguntzak emateko irizpideak

Diru laguntzak ematean, oro har, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Aurkeztutako proiektuaren kalitatea eta originaltasuna. 50 puntu.
- Oiartzungo artista/eragilea izatea. Oiartzungo artista/eragiletzat hartuko da Oiartzungo testuinguruan jarduten duena. 10 puntu.
- Proiektuaren garatze prozesuan herriko eragile eta norbanakoen inplikazioa eskatuko duen proiektua izatea. 15 puntu.
- Proiektuaren bideragarritasuna. 25 puntu.

Dirulaguntzaren onuradunak pertsona bat baino gehiago direnean, sexu bakoitzetik bana izatea hobetsiko da, beti ere, egindako proposamen artistikoak onuraduna izateko kalitate nahikoa badu.

Elkarteen kasuan lehentasuna izango dute emakumez osatutako elkarteek edota emakume eta gizonen partaidetza orekatua dutenek, zein emakumeen parte-hartzea sustatzeko jarduerak, ildoak eta dinamikak aurrera daramatzaten elkarteek.

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidaren gordetako dirua ekitaldi guztien artean proportzionalki banatuko da.

4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2025 zenbakidun partidaren kontura.

Oiartzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

4.3. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen leketan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orria.
- Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena. (I. eranskina)
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua (II. Eranskina)

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Oiertzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarrengarri hauek lortzeko:

- Identitatea: Elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZa edo NAN (pertsona fisikoaren kasuan).
- Eskaera egiten duen elkarte, erakunde edo interesatuaren kontu korrontearen titulartasuna.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua arabera, Oiertzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Identitatea: Elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZa edo NAN (pertsona fisikoaren kasuan).
- Eskaera egiten duen elkarte, erakunde edo interesatuaren kontu korronte bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.

6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkezteak

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

7. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete bateko epean aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun baliouduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

8. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kultura arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu, txostena egingo du eta dagokion udal organoari proposamena luzatuko dio dirulaguntzak banatzeko.
- Udalak, alkatetzako dekretu bidez behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiertzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber,

Oiertzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru laguntzaren %80a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontuari dagokion gastua justifikatu ondoren ordainduko da. Justifikazioa egiterakoan kontuan hartuko da diru laguntza emateko orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proportzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru laguntzaren mugaraino. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantza Orokorraren VIII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:

- Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoaia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
- Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.

Diru laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

Diruz lagundutako jardueraren hedapen ekintzetan, jasota geratu beharko du Oiertzungo Udalaren diru laguntza bidezko lankidetzak.

Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Eskaera orria.
- b) Eginiko eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria. (4. eranskina)
- c) Gastu eta diru sarreraren balantzea. (5. eranskina)
- d) Aurkeztutako justifikanteen zerrenda. (6. eranskina)

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiertzun 943 490 142 – www.oiertzun.eus

- e) Eginiko gastuaren ordainagiriak. (6. eranskina) Ordainagiri hauek, ezinbestez, diru laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru laguntzaren mugaraino. Egiaztagiriak Oñartzungo Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorra ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.
- f) Jasotako beste diru laguntzen zerrenda
- g) Ekintzari buruzko bi argazki formatu digitalean. (Argazki hauek udalak herri intereserako helburuetarako erabili ahal izango ditu).
- h) Jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizkoan Oñartzungo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.
- i) Posible den kasuetan eta egile eskubideak gordez, sorkuntza jardueraren emaitza euskarri digitalean entregatuko zaio Udalari, ahal den kasu horietan, udalerriko herritarrek jarduera horretaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga hau izango da: 2026ko urtarrilaren 31a.

12. ARTIKULUA.- Diru laguntza itzultzea

Deialdi honetako 11. artikulua ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oñartzungo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oñartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantza ezartzen duena eta Herri Administrazioetako diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

I. ERANSKINA: proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena

Eskatzaileak nahi izanez gero, eranskin honen ordeztu gutxienez ondorengo alderdiak deskribatzen dituen txosten propioa ekarri ahal izango du.

1. PARTE HARTZAILEAK

Antolakuntzan (ekintza aurretik)		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ikusleak/erabiltzaileak		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
Parte hartzaileak ekintzan (egunean bertan, antzezleak, musikariak,...)		
Emakumeak	Gizonak	Guztira

2. DESKRIBAPENA

3. HELBURUAK

4. EKINTZAK GAUZATZEKO EGUNAK ETA TOKIAK

Jarduera	Eguna	Tokia

5. PROIEKTUAREN HARTZAILEAK. NORI ZUZENDUA DAGO EKINTZA?

6. GIZA BALIABIDEAK

<i>Zenbat pertsona beharko dira antolakuntzan? Zein betebeharrak izango dituzte? Erantsi giza baliabideen kopuruak eta ardurak sexuagatik desagretuta.</i>			
Zeregina, ardura	Emakumeak	Gizonak	Guztira

7. BALIABIDE MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK*

* Baliabideak hemen zehazteak ez du esan nahi horiek udalak jarri behar baditu eskaera egin behar ez denik.

--

8. PAREKIDETASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

<i>Emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartzeko landutako neurriak:</i>
<i>Proiektuan genero ikuspegia txertatzeko neurriak:</i>
<i>Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerrarazteko eta genero-rolak apurtzeko neurriak:</i>
<i>Bereizkeria anizkoitza dutenen parte hartzea errazteko neurriak:</i>
<i>Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta kultur ekitaldietan parte hartzea bateragarri egiteko neurriak:</i>

9. BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN KOLEKTIBOAK ERAKARTZEKO AHALEGINA

<i>Kontuan hartutako kolektiboa eta eginiko ahalegin (neurri zehatzak) deskribatu, hala bada kasua:</i>

II. ERANSKINA: Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua

Gastuak (azalpena)	Zenbatekoa
GUZTIRA (A)	

Sarrerak (azalpena)	Zenbatekoa
GUZTIRA (B)	

Emitza	Zenbatekoa
Emitza, guztira (A-B)	

Udalari eskatzen zaion dirulaguntza: (gastu osoa ezin du gainditu)	Zenbatekoa

Elkartek bere diru-iturrietatik jarritakoa edo lortutakoa	Zenbatekoa

IV. ERANSKINA: Jardueraren memoria (justifikazioa)

1. PARTE-HARTZAILEAK

Zenbat pertsonak parte hartu dute ekitaldian?

Antolakuntzan (ekintza aurretik)		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ekitaldian parte hartzen		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ekitaldia ikusten (egunean bertan, antzezleak, musikariak,...)		
Emakumeak	Gizonak	Guztira

2. EKITALDIAREN BALORAZIO OROKORRA

3. JASOTAKO BESTE DIRULAGUNTZAK

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua)



V. ERANSKINA: Gastu eta dirusarreraren balantzea (justifikazioa)

[illegible]

Sarrerak (azalpena)	Zenbatekoa	Guztira
GUZTIRA (B)		

Emaita	Zenbatekoa
Emaita, guztira (A-B)	

VI. ERANSKINA: Gastua zuritzea (justifikazioa)

Justifikanteen zerrenda:

Faktura zk.	Data	Hornitzailea IFK eta izena	Azalpena	Zenbatekoa

GUZTIRA

GASTUAREN JUSTIFIKANTEEK bete beharko dituzten baldintzak ondorengoak izango dira:

- Antolatzailearen izena, helbidea eta IFZ
- Hornitzailearen izena, helbidea eta IFZ
- Data
- Faktura zenbakia
- Hornidura edo zerbitzuaren deskribapena

Tiketen kasuan nahikoa izango da hornitzailearen izena eta IFZ.